

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

4838

AGINDUA, 2018ko irailaren 24koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluan Euskal Autonomia Erkidegoaren zenbait ordezkari, titularrak eta ordezekoak, kargutik kentzeko eta izendatzeko dena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak (uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, azaroaren 7ko 16/1997 Legeak emandako idazkuntzan) 9. artikuluan ezartzen du Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluaren osaera, eta lehen paragrafoko b) apartatuaren eta bigarren paragrafoaren arabera, funtzio publikoaren alorrean eskuduntza duen sailburuak izendatuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko bost ordezkariak, langile-kopuru handiena atxikita dagoen sailtako langileen kudeaketaren ardura duten goi-karguen artetik, eta organo horretako idazkaria ere izendatuko du.

2013ko irailaren 30eko eta 2017ko abuztuaren 4ko Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkarian, 2013ko abuztuaren 29ko eta 2017ko uztailaren 20ko Aginduak argitaratu ziren, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena eta Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak izango dituen titularrak eta ordezekoak izendatzen dituenak.

2017ko uztailaren 20ko Aginduaren ostean Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionaleko zuzendaritzako goi-karguen artean kargu-uzte eta izendapen berriak egin direnez gero, Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak izango dituen ordezkari titular eta ordezekoen izendapen berri batzuk egin behar izan dira.

Hori guztia dela eta, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Konrado Mugertza Urkidi jauna Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari gisa kentzea, eta bere ordezkari Langileak Kudeatzeko zuzendaria den Jon Agirre Huerga jauna izendatzea. Azken hori, ordezkari bokal izendatzea.

Bigarrena.– Daniel Salazar Irusta jauna Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari gisa kentzea, eta bere ordezkari Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako zuzendaria den Ibon Etxeberria Olañeta jauna bokal titular izendatzea.

Hirugarrena.– Jose María Armentia Macazaga jauna Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari gisa kentzea, eta bere ordezkari Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendaria den Juan Carlos Soto Pérez jauna ordezkari bokal izendatzea.

Laugarrena.– Honako agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadila agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 24a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.